II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

## Gautegiz-Arteagako Udala

**Kirola, euskara, musika eskola eta haurreskolako diru-laguntzak eskatzeko 2019. urteko deialdia egiteko Alkateak azaroaren 6an hartutako 147/2019 Erabakiaren laburpena. BDNS (Identif.): 481626.**

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluekin bat etorrita, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa ikusi nahi izanez gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionala kontsulta daiteke: http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/inde.

**«KIROLA, EUSKARA, MUSIKA ETA HAURRSKOLARAKO DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO 2019KO DEIALDIA**

**1. Xedea**

Honakoaren xedea da Gautegiz-Arteagako bizilagunek egindako kirol gune, euskara ikastaro, musika ikastaro eta haurreskolako matrikula edo abonuak diruz laguntzeko baldintzak arautzea, Gautegiz-Arteagako Udalaren Laguntzak arautzeko Ordenantza oinarritzat izanik (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala 18 zenbakia, 2009ko urtarrilaren 28koa).

**2. Aurrekontua**

Gautegiz-Arteagako Udalak 8.400,00 euroko aurrekontua izango du onartutako eskabide guztien artean banatzeko.

Baldin eta eskabideak aztertu eta gero, diru-laguntza honetarako Udalak aurreikusitako diru kopurua baino kopuru handiagoa ateratzen bada, lortutako zenbatekoaren eta eskura dagoen diruaren arteko diferentzia zatituko da diru-laguntza jasotzeko eskubidea duten eskatzaile guztien artean.

**3. Diruz lagunduko diren ikastaroak eta zenbatekoak**

1. mota.—*Herri kiroldegiak*

Diruz lagunduko den zenbatekoa erroldatuen abonu-tarifen eta Gautegiz-Arteagan erroldatuen abonu-tarifen arteko aldea izango da, jarduera hori Gautegiz-Arteagako udalerrian egiterik ez badago.

2. mota.—*Euskara-ikastaroak*

Diruz lagunduko den zenbatekoa ikasturteko euskara-ikastaroen matrikularen prezioaren %50 izango da eta barnetegi matrikularen prezioaren %20 izango da.

3. mota.—*Herri musika eskolak*

Diruz lagunduko den zenbatekoa erroldatuen abonu-tarifen eta erroldatu gabeen abonu-tarifen arteko aldea izango da.

4. mota.—*Gautegiz-Arteagako Haurreskola*

Gautegiz-Arteagako Haurreskolan matrikulatzen diren haurrek %50 dirulaguntza edukiko dute.»

Gautegiz-Arteagan, 2019ko azaroaren 12an.—Alkatea, Juan Félix Naberan Ozamiz

eek: BAO-2019a223-(II-4373)

SECCIÓN II

## ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

### Ayuntamiento de Gautegiz-Arteaga

**Extracto de la Resolución de Alcaldía 147/2019, de 6 de noviembre de 2019, por el que se convoca las subvenciones deportivas, aprendizaje del euskera, escuela de música y Haurreskola 2019. BDNS (Identif.): 481626.**

De conformidad con lo previsto en los artículos 17.3.b) y 20.8.a) de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, se publica el extracto de la convocatoria cuyo texto completo puede consultarse en la Base de Datos Nacional de Subvenciones (https://www.pap.hacienda.gob.es/bdnstrans/GE/eu/convocatorias):

**«CONVOCATORIA PARA LA SOLICITUD DE SUBVENCIONES DEPORTIVAS, APRENDIZAJE DEL EUSKERA, ESCUELA DE MÚSICA Y HAURRESKOLA 2019**

**1. Objeto**

Es objeto de la presente regular las condiciones de las ayudas de las matrículas o abonos a centros deportivos, cursos de euskera, cursos en escuelas de música y haurreskola realizados por los vecinos y vecinas de Gautegiz-Arteaga, de acuerdo con la Ordenanza reguladora de las Subvenciones Municipales de Gautegiz-Arteaga («Boletín Oficial de Bizkaia» número 18 de 28 de enero de 2009).

**2. Presupuesto**

El Ayuntamiento de Gautegiz-Arteaga dispondrá de un presupuesto de 8.400 euros para este fin.

En el caso, tras valorar las solicitudes, de resultar un importe subvencionable superior al previsto en esta convocatoria, la diferencia resultante entre el importe obtenido y el importe disponible según la convocatoria se prorrateará por partes iguales entre los solicitantes con derecho a subvención.

**3. Cursos objeto de subvención y cuantía**

Tipo 1.—*Polideportivos Municipales ubicados fuera del municipio*

El importe objeto de la subvención se corresponderá a la diferencia de tarifas de abono entre los empadronados y los no empadronados siempre que la actividad no se preste en el municipio de Gautegiz-Arteaga.

Tipo 2.—*Cursos de euskera*

El importe objeto de la subvención se corresponderá al 50% del coste de matrícula de los cursos de euskera y el 20% del coste de matrícula en Barnetegis.

Tipo 3.—*Cursos de Escuelas Municipales de Música*

El importe objeto de la subvención se corresponderá a la diferencia de tarifas de abono entre los empadronados y los no empadronados siempre que la actividad no se preste en el municipio.

Tipo 4.—*Haurreskola de Gautegiz-Arteaga*

El importe objeto de la subvención para aquellos que matriculen a su hijo/a en la Haurreskola de Gautegiz-Arteaga será del 50% del coste de la matrícula.»

En Gautegiz-Arteaga, a 12 de noviembre de 2019.—El Alcalde, Juan Félix Naberan Ozamiz

cve: BOB-2019a223-(II-4373)